## GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

### Zk-2941

97/2004 DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa, Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzeko Dekretua aldarazteko dena.

Urtarrilaren 15eko 20/2002 Dekretuaren bitartez, Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatu ziren.

Dekretua indarrean jarri zenetik hona, aipatutako sail horren egitura organikoan eragina izan duten beste arau batzuk ere onartu dira, eta, beraz, Sailaren egitura organikoa finkatzeko indarrean zegoen dekretua aldatu behar izan da aldiro.

Ildo horretatik, abenduaren 15eko 5/2003 Legearen bidez, Euskadiko Garraio Agintaritza eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko aholku- eta koordinazio-erakunde gorena izan dadin garraioa antolatzeko alorrean. Lege horretan ematen zaizkion eskumenak eta egitekoak izango ditu erakunde horrek, eta garraio-arloan eskumena duen Sailari atxikita egongo da.

Abenduaren 16ko 311/2003 Dekretuak, berriz, Meteorologia Euskal Agentzia sortu zuen, eta erakunde horren esku geratu zen, hortik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoaren esku dauden meteorologia-jardunak burutzeko ardura. Erakundea Meteorologia eta Klimatologia Zuzendaritzari atxikita geratu zen, eraketa-dekretuak eman zizkion eginkizun guztiak betetzeko.

Euskadiko Garraioaren Behatokia ere eratu zen, urtarrilaren 20an emandako 11/2004 Dekretuaren bidez, eta Garraio Zuzendaritzari atxikita geratu zen; administrazio-atal horren helburua, garraioaren nondik norakoak eta bilakaerak diagnostikatzea eta aurrera begira iragarpenak egitea, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailean xedatutakoa oinarri eta eraketa-dekretuan emandako eginkizunak helburu.

Administrazio Instituzionalaren esparruan, uztailaren 29ko 196/2003 Dekretuaren bidez, baimena eman zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» baltzuaren akzioak eros ziezazkion baltzuaren beste bazkideari, Zumaiako Udalari. Beraz, erosketa hori eginda, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa da orain baltzu horretan partaide nagusi, eta, horri lotuta, baltzu publiko bilakatu da.

Horrenbestez, Garraio eta Herri Lan sailburuak halaxe proposatuta, Lehendakariak aurrez onespena emanda, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hauxe xedatu dut.

## DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

### N°-2941

DECRETO 97/2004, de 25 de mayo, de modificación del Decreto de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas.

Mediante Decreto 20/2002, de 15 de enero se estableció la estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas.

A lo largo de la vigencia de dicho Decreto se han aprobado una serie de normas que afectan a la estructura orgánica del Departamento y que obligan a modificar puntualmente el Decreto de estructura orgánica vigente.

Así la Ley 5/2003, de 15 de diciembre, ha creado la Autoridad del Transporte de Euskadi, como órgano superior consultivo y de coordinación de la Administración General del País Vasco en materia de ordenación el transporte, con las competencias y funciones que se le atribuyen en dicha Ley, adscrito al Departamento competente en materia de transportes

El Decreto 311/2003, de 16 de diciembre crea la Agencia Vasca de Meteorología, como órgano encargado de la ejecución operativa de las actividades meteorológicas de titularidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Este órgano se adscribe a la Dirección de Meteorología y Climatología, para el desarrollo de las funciones que le atribuye su Decreto de creación.

El Decreto 11/2004, de 20 de enero, crea el Observatorio del Transporte de Euskadi, unidad administrativa adscrita a la Dirección de Transportes, cuyo objeto es la diagnosis y simulación prospectiva de la evolución del transporte en el marco de lo dispuesto el Plan Director de Transporte Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y con las funciones que se determinan en su decreto de creación.

En el ámbito de la Administración Institucional, el Decreto 196/2003, de 29 de julio, ha autorizado a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la compra de acciones de la sociedad Zumaiako Kirol Portua, S.A. al otro socio de la misma, el Ayuntamiento de Zumaia. Tras esta operación la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi ha pasado a ser participe mayoritario y la sociedad ha adquirido el carácter de sociedad pública.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Transportes y Obras Públicas, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el 25 de mayo de 2004,

XEDATU DUT:

***Leben artikulua.***– Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzeko urtarrilaren 15ean emandako 20/2002 Dekretuaren 3. artikuluan, honako era honetara geratuko da aurrerantzean idatzita 1. paragrafoko b) idatz-zatia:

«b) Meteorologiari dagokionez, Meteorologiako Euskal Batzordea eta Meteorologiako Euskal Agentzia.»

***Bigarren artikulua.***– Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzeko urtarrilaren 15ean emandako 20/2002 Dekretuaren 3. artikuluko 1. paragrafoan beste letra bat erantsiko da, e) idatz-zatia, honako era honetara idatzita:

«e) Garraioari dagokionez, Euskadiko Garraio Agintaritza.»

***Hirugarren artikulua.***– Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzeko urtarrilaren 15ean emandako 20/2002 Dekretuaren 3. artikuluko 2. paragrafoan beste letra bat erantsiko da, d) idatz-zatia, honako era honetara idatzita:

«d) «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» sozietate publikoa.»

***Laugarren artikulua.***– Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzeko urtarrilaren 15ean emandako 20/2002 Dekretuaren 9. artikuluan, beste paragrafo bat erantsiko da, 3. paragrafoa, honako era honetara idatzita:

«3.– Euskadiko Garraioaren Behatokiak, Garraio Zuzendaritzari atxikita, urtarrilaren 20ko 11/2004 Dekretuak emandako eginkizunak beteko ditu, dekretu horren bidez eratu baitzen Euskadiko Garraioaren Behatokia.»

***Bosgarren artikulua.***– Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzeko, urtarrilaren 15ean emandako 20/2002 Dekretuaren 11. artikuluan, honako era honetara geratuko da aurrerantzean idatzita 2. paragrafoa:

«2.– Garraio eta Herri Lan sailburuordearen zuzendaritzapean eta haren aginduei jarraikiz, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak, gainera, «Euskadiko Kirol Portua, S.A.« eta «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» sozietate publikoei administrazio-babesa eman eta haien kudeaketa ikuskatuko du, eta gauza bera egingo du Zuzendaritzari emandako ahalmenekin zerikusia duen beste sozietate publikorik sortuz gero.»

***Seigarren artikulua.***– Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzeko urtarrilaren 15ean emandako 20/2002 Dekretuaren 12. artikuluan, beste paragrafo bat erantsiko da, 2. paragrafoa, honako era honetara idatzita:

«2.– Meteorologiako Euskal Agentziak, Meteorologia eta Klimatologia Zuzendaritzari atxikita, abenduaren 16ko 311/2003 Dekretuak emandako eginkizunak beteko ditu, dekretu horren bidez eratu baitzen Meteorologiako Euskal Agentzia.»

DISPONGO:

***Artículo primero.***– La letra b) del apartado 1 del artículo 3 del Decreto 20/2002, de 15 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas queda redactado como sigue:

«b) En materia de meteorología, la Comisión Vasca de Meteorología y la Agencia Vasca de Meteorología.»

***Artículo Segundo.***– Se adiciona una nueva letra, la e), al apartado 1 del artículo 3 del Decreto 20/2002, de 15 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas, con la siguiente redacción:

«e) En materia de transportes, la Autoridad del Transporte de Euskadi.»

***Artículo Tercero.***– Se adiciona una nueva letra, la d), al apartado 2 del artículo 3 del Decreto 20/2002, de 15 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas, con la siguiente redacción:

«d) La sociedad pública «Zumaiako Kirol Portua, S.A.»

***Artículo Cuarto.***– Se adiciona un nuevo apartado, el 3, al artículo 9 del Decreto 20/2002, de 15 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas, con la siguiente redacción:

«3.– Adscrito a la Dirección de Transportes, el Observatorio del Transporte de Euskadi desarrollará las funciones que le atribuye el Decreto 11/2004, de 20 de enero, por el que se crea el Observatorio del Transporte de Euskadi«

***Artículo Quinto.***– Se modifica el apartado 2 del artículo 11 del Decreto 20/2002, de 15 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas, que queda redactado como sigue:

«2.–Bajo la superior dirección y conforme a las instrucciones del Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos ejercerá la tutela administrativa y la supervisión de la gestión de las sociedades públicas «Euskadiko Kirol Portua, S.A.» y «Zumaiako Kirol Portua, S.A.», así como de aquellas otras sociedades públicas que puedan crearse en relación con facultades atribuidas a la Dirección.»

***Artículo Sexto.***– Se crea un apartado 2 en el artículo 12 del Decreto 20/2002, de 15 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas, con la siguiente redacción:

«2.– Adscrita a la Dirección de Meteorología y Climatología, la Agencia Vasca de Meteorología desarrollará las funciones que le atribuye el Decreto 311/2003, de 16 de diciembre, por el que se crea la Agencia Vasca de Meteorología.«

DISPOSICION FINAL ÚNICA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko maiatzaren 25ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSE IBARRETXE MARKUARTU.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
ÁLVARO AMANN RABANERA.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### Zk-2942

EBAZPENA, 2004ko apirilaren 22koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearena, Javier García Martín jauna, «Zuzenbide eta Erakundeen Historia» jakintza-arloan Unibertsitateko Irakasle Titularra izendatzeko dena. Plaza horietarako deialdia 2001eko azaroaren 26ko (abenduaren 11ko «Estatuko Buletin Ofiziala») Ebazpenaren bidez egin zen.

Unibertsitate-Erreformarako abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 42. artikuluan eta berau garatzen duten gainerako xedapenetan adierazitakoaren arabera, eta interesatuak, 13. artikuluaren 1. puntuan ezarririko epean, irailaren 26ko 1888/1984 Errege Dekretuaren 5. artikuluaren 2. atalean aipaturiko betebeharrak bete ondoren, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen 2001eko azaroaren 26ko (abenduaren 11ko «Estatuko Buletin Ofiziala») Ebazpenaren bidez deialdia eginiko Unibertsitateko plazak betetzeko lehiaketa epaitu behar duen batzordeak proposamen bat egin zuen. Errektoregoaren 2003ko apirilaren 4ko (maiatzaren 9ko «Estatuko Buletin Ofiziala") Ebazpenaren bidez izendatu zen batzorde horren proposamenarekin bat etorriz.

Errektorego honek, ondoko hau Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Unibertsitateko Irakasle Titularra izendatzea ebatzi du: Javier García Martín jauna, N.A.N.–zkia 07.860.278, jakintza-arloa: «Zuzenbide eta Erakundeen Historia». Saila: Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbideen Historia.

DISPOSICION FINAL ÚNICA

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 25 de mayo de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSE IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,
ÁLVARO AMANN RABANERA.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

### N°-2942

RESOLUCIÓN de 22 de abril de 2004, de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se nombra Profesor Titular de Universidad a D. Javier García Martín, en el área de conocimiento «Historia del Derecho y de las Instituciones», cuya plaza fue convocada por Resolución de 26 de noviembre de 2001 («Boletín Oficial del Estado» de 11 de diciembre)

De conformidad con la propuesta de la Comisión nombrada por Resolución Rectoral de 4 de abril de 2003 («Boletín Oficial del Estado» de 9 de mayo) para juzgar el concurso para la provisión de plazas de Cuerpos Docentes Universitarios, convocadas por Resolución de 26 de noviembre de 2001 de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea («Boletín Oficial del Estado» del 11 de diciembre), de acuerdo con lo determinado en el artículo 42 de la Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria y demás disposiciones que la desarrollan, y habiendo cumplido el interesado los requisitos a que alude el apartado 2 del artículo 5.º del Real Decreto 1888/1984 de 26 de septiembre, en el plazo establecido en el punto 1 del artículo 13.

Este Rectorado ha resuelto nombrar Profesor Titular de Universidad de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea a D. Javier García Martín, D.N.I. n.º 07.860.278, en el área de conocimiento: «Historia del Derecho y de las Instituciones». Departamento: Derecho Internacional Público, Relaciones Internacionales e Historia del Derecho.